

6. koadernoia: Urtean Zeharreko II. aldia (ekainak 13 – uztailak 31)

1. Urteko jardueretara itzuli

Pazko-aldiko berrogeita hamarraldiaren ostean, atzera ere urtean zeharreko jardueretara itzuliko gara. Hamaikagarren astean murgildurik gaude. Hurrengo hilabete eta erdian (denboratarte horixe hartzen baitu koaderno honek), bihotz barruan duzun klaretarrekin bat egiteko beste aukera bat izango duzu. Uztailaren 3an, Andre Maria Sortzez Garbiaren ohorezko jai ospatuko dugu, eta uztailaren 16an –Karmengo Amaren eguna–, Kongregazioaren 162. urteurrena. Bi efemeride horien inguruan Jainkoari eskerrak ematera gonbidatuta zaude, “zure bokazioa” Jainkoaren oparizat onartzeko, Andre Maria Sortzez Garbiaren seme zaren aldetik, zure nortasunaren zer izana sakontzeko eta Kongregazioan zure parte-hartzea *Quid Prodest* galderaren argitara indarberritzeko. Errealitate bi horiek (nortasuna eta kidesasuna) XXIV. Atal Orokorrean (cf *HAC* 34-41) landu genituen zehatz-mehatz.

Ipar hemisferioan bizi bazara, ikasturtea nahiz urte pastoralaz pazko-aldian amaitzen da, eta horrekin batera, oporrak hasten. Zure bizimodua, beharbada, egoera berrira egokitu beharko duzu. Esperientzia berriak izateko eta beste pertsona batzuekin egiteko abagunea izan liteke. Ez alferrik galdu zure aukera. Hego hemisferioan bizi bazara, gogor lan egiteko garaia duzu, baina ez, ordea, probetxurik gabekoa: eutsi bizi-bizi “urtean zeharreko profesuari”, egintza txikienetan ageri baita gu geu garen hori.

“Pazko-aldiko egunerokoan” (“eguneroko utopikoan”, alegia) idazten jardun duzulako ziur asko, bihotz-buruak lehen ere baino askoz argiago dituzu, eguneroko bizimoduaren amaraunean Jainkoaren grazia nonahi dagoela ohartzeko. Walt Whitman poeta estatubatuarrak esaten zuen “Jainkoaren eskutitzak kalean botata” aurkitzen zituela. *Bihotz garbiek* nonahi ikusiko dute Jainkoa (cf *Mt* 5,8). Jarrera ireki bati esker igarriko diezu urtean zeharreko egunoi Jainkoaren zeinuak txertatuta daramatzatela, eta edonon ager daitezkeela haiek: naturan, gertaeretan eta, nagusiki, pertsonen artean. Utzi haiek guztiek lagun zaitzaten, eta saia zaitetz Jainkoaren deiari jaramon egiten.

“Sutegia eguneroko bizimoduan” egitasmoaren barruan modu berezian nabarmentzen da laguntzailearen egitekoa, baina laguntza hori ez da besterik gabe lagun edo zuzendari espiritualarekin egin ohi den elkarrizketa hutsa. Bizipen orok bera baitan gordea du Jainkoaren mezua, eta hainbat erataraz laguntzen digu horrek: Jainkoaren Herriko herritarrak garen aldetik, bere artzainen bitartez, bere liturgiaren bitartez, bere teologoaren bitartez, bere artisten eta bere elkarteetako jendearen bitartez, besteak beste. Haren seinaleak ikusten eta azaltzen ikasi behar ditugu, eta gidarizat hartu. Beste errealitateekin harremanetan jartzen garenean, orduan soilik dakigu nor garen.

2. Gogoeta

Nire nortasun erlijiosoa

Pazko-aldian, Eliza hartu zenuen gogoeta-gai, eta “Berpiztuaren elkarte” gisa aztertu. Elizak, historiaren gorabehera guztien gainetik, “Jainkoa egiaz dela berpiztu” (*Lk* 24,34) aitortzen jarraitzen du. Beharbada, erakunde aitortzailearen moduak Elizarengan ikustea zail egingo zaizu batzuetan, izan ere etengabe argitaratzen baitira bere akats

eta bekatuak. Zer eragiten dizu zuri horrek? Ezin errealitate horren aurrean begiak itxi. Baina irudi negatibo hori behin eta berriro ikusteak min ematen badigu ere, guk, misiolari klaretarrak, bataiatuen Eliza honen barruan, “Kristori betiko jarraitzeko eta ebanjelioa gizaki orori eta mundu osora zabaltzeko dohaina jaso dugu” (*CC* 4). Ebanjelioak agintzen duenez, gure arau bakarra hau da: dena utzi eta Kristoren jarraitzaileak

izatea. Mundu osoko klaretar guztiekin bat eginez, Konstituzioetako hitza aldarrikatzen dugu: “Guk, bokazio jainkotiar honi erantzunez, gure egiten dugu Andre Mariak ere fedez besarkatu zuen Jesusen bizitza. Horregatik, Kristoren birjintasunaren, pobreziaren eta esanekotasunaren ordezkari izango gara Elizaren baitan, eta gure egitekoa ebanjelioa zabaltzea izango da. Ebanjelioaren jarraitzaileak garen aldetik, geure burua eskaintzen diogu Jainkoari eta Berak sagaratzen gaitu, Elizarengan egiazko eta guztiz apostolikoa den institutu bat eratuz” (CC 5).

“Bokazio jainkotiarraren” deiari eman diozun erantzunak gizon erlijioso egiten zaitu, ziur al zaude horretaz? Ebanjelioaren zerbitzuan bizitza etengabe emateko arrazoien artean, hartu al dituzu lehengoak bezain zintzoak ez diren beste batzuk? Jesusekin Elizan bat eginez, haren antzera bizitzea da bokazio horren funtsa: kastu, txiro, esaneko eta Erreinuaren berri ona emateari guztiz emana.

XXIV. Atal Orokorrean honako hau onartzen da: misiolari bizitzari zor diogun zereginetako bat “gure bizimodua ‘Kristorenganako pasioz –gizadiarenganako pasioz’ osatzea da, ebanjelioaren ikur diren Samariarren testigantza eginez, Jainkoaren egarriaren ikur baitira, baztertuen, indarkeriaren biktimen, behartsuen lagun errukiorrak, Bizitza Kontsakratuaren nazioarteko Batzarrak aditzera eman zuen bezala (2004)” (HAC, 6a). Jainkoa

bilatzea eta baztertuenganako errukia, sagaratu ororen pasiorik handienak horiek dira. Batak bestea azaltzen eta elikatzen du. Baina haietako bat ondo zaintzen ez bada, bizitza sagaratu karikatura huts bihurtzen da.

Zu pertsona sagaratu zara. Zeure burua eskaini diozu Jainkoari erabat, ebanjelioaren zerbitzura. Ziurrenik baina, ez duzu gertakizun hori beti modu berdinean ulertu. Izan ere, bizitza sagaratu ulertzeko moduak aldatu egin dira elizaren baitan, Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren batez ere. Baina, liskar teologikoez haratago, garrantzitsuena orain *zuretzat* duen esanahiaz ohartu zaitezela da. Lau urtez luzatuko den “Sutegia eguneroko bizimoduan” egitasmoan zehar, gaur egun Jesukristo kastu, txiro eta esanekoaren jarraitzaile izateak eskatzen dituen bideak berriz –batez ere “Caritas Christi” garaian– ibiltzeko aukera izango duzu. Orain errealitate horretaz oharturik nahi zaitugu eta gainera *Quid Prodest* galderaren ikuspegitik; beraz, kontuan hartuko beharko duzu zer “galtzen” eta zer “irabazten” duzun, aukeratu duzun bizimoduaren arabera.

Jainkoarengan poz-pezik jarri zinen, ziur, baina zenbat aldiz galdetu diozu zeure buruari, merezi ote du horrela bizitzeak? Orain arteko zure bizipen guztiak kontuan harturik, hasiko al zinen berriro zerotik?

1. ariketa: 16. Salmoa

Otoitzean hasi zaitezke 16. salmoarekin, bizitza erlijiosoaren historian eragin gehien izan duen salmoarekin, alegia. Murgil zaitez bere hitzen giroan, Jainkoari eskaini diozun zure biziaren ispilu egin arte. Ondoren, galdera hauek erantzun ditzakezu zure koadernoan:

1. “Zu zara neure jaun eta jabe bakarra, zu zara nire zorion guztia, bat bakarra ere zara munduan” (2.b), esan al ditzakezu hitz horiek bihotz-bihotzez? Sentitzen al duzu zentzua benetan ematen diotela zure bizitza sagaratuari?
2. Bizitza sagaratuaren dohaina jaso ondoren, “zorion-sorta bat suertatu zaizula” (6.b) uste duzu? Elizaren barruan erlijioso modura bizitzeak zoriontsu egiten al nau? Zer jaso dut nire onerako?
3. Nor dira niretzat “jainko mundutarrak, lehen asebetetzen ninduten botere haiek” (3.b)?

Nire Nortasuna, elizgizona naizen aldetik

Hurrengo ariketan gogora ekarri ditzakezun hainbat arrazoirengatik, egiaz ari zara zure misiolari klaretarraren bizimodua bizitzen.

Zeure burua abadetzari edo erlijio-bizimoduari erabat lotua ikusten bazenuen ere, izango zenituen kongregazioan izena eman baino lehen, beharbada, zure bizimodu berrirako beste aukera batzuk. Orduan, zergatik misiolari klaretar? Zer

nabarmenduko zenuke gaur egun bizi duzun egoeraz?

XXIV. Atal Orokorrak nortasun klaretarraren gaia aztertu zuen. Izan ere, Kongregazioak dituen arazoaren artean garrantzikoena hori dela adostu zen Brasilen, Jundiai herrian, 2008ko urtarrilean, Gobernu Nagusiak eta Fraide-Buruek egin zuten Batzarrean. Hala da, bai, nor garen ondo ez badakigu eta gure nortasuna poz-pez bizitzen ez badugu, nola lagunduko diogu ebanjelioaren helburuari? Nola ekarri besteak gure ondotik ibiltzeko? Ez dugu formula biribil bat asmatu nahi, baizik eta gure bizitzaren esperientzia sendoa eta bizi bat indarberritu.

Gure nortasunari buruz ari garenean, XXIV. Atal Orokorrak gogorarazten digu “lehenbiziko ofizioaren ostean, gure izenari CMF (*Cordis Mariae Filius*) siglak gehitzen dizkiogula” (cf. *Dir* 25). Ez da apaingarri hutsa. Gure nortasun berriaren bitartez, lagun-hurkoa ere gure barneko egiten dela esan nahi du: Andre Mariaren Bihotz Garbiaren Misiolari Semeak izatea gizaki, kristau, elizgizon, ministro ordenatuak eta apostoluak izateko gure modua da (cf. *CC* 4, 159; *Dir* 24-26; *MCH* 132) (cf. **1. eranskina**). Ez da beste errealitate askoren artean beste bat gehiago, klaretar izatea gure bizitzaren alderdi guztiak biltzen dituen karisma bat da. Agian potoloegia iruditu zaizu baieztapen hori, eta litekeena da zure esperientziarekin bat ez etortzea guztiz. Dena den, denbora hartu horri buruz gogoeta egiteko eta bere esanahian sakontzeko.

Nor zaren galderak (nortasunari buruzko galdera, alegia) beste hiru galdera biltzen ditu bere asmo zehatzaren inguruan:

- *Nola duzu izena?* Izenak izena azaltzen du. Zure deitura zibilaz gain (eta, behar bada, bataio-izenaz gain), zuk zure izen karismatikoa duzu: Andre Mariaren Bihotz Garbiaren Seme. Harro al zaude zure izenaz? Lotsatzekoa iruditzen zaizu? Zein da bere esanahia? Noraino azaltzen du zu zaren hori?
- *Zein da zure aurpegia?* Nortasun-agiriekin jabearen aurpegiaren argazki bat erakusten dute, normalean. Gu nor garen hobekien azalduko duen beste gorputz-atalik ez dago. Aurpegiak –eta begiek, bereziki– modu fisikoan uzten du agerian gure sakon-sakoneko nortasuna. Nola deskribatuko zenuke zure aurpegi karismatikoa? Elizan diren beste “aurpegi karismatikoen” antzekoa al da?
- *Zertan zabilta lan kontuetan?* Gure ekintzek garena esplikatzeko dute, baina ez beti. Egitea ez da besterik gabe gure nortasunak kanpora irteteko duen bidea, gure misterio pertsonalaren mintzaera ere bada. Galdera hori egiten dizutenean, zer erantzuten duzu? Hobeki esanda: Zein da zure lanbidea? Non egiten duzu lan? Jesusen antzera eta Claretaren antzera, “Aitarekin gauzetan” bete-betean diharduzula (cf. *Lk* 2,49) esan dezakezu?

Agian, hurrengo ariketak –bere sinpletasunean–, zure nortasun klaretarrari buruz gogoeta egiten eta hura labur eta zehatz adierazten lagunduko dizu.

2. ariketa: CMF iragarkia

*Pentsa norbaitek nortasun klaretarra zer den azaltzeko eskatu eta publizitate kanpaina baten bidez egiteko agintzen dizula. Hor oinarritzekoena nabarmendu behar da eta gainera ahalik eta modu labur eta politenean. Horretarako, bere balioak goraiatu beharko dituzu, irudi sinboliko bat aukeratu, **eslogan** bat asmatu eta 40-50 hitz bitarteko luzera duen **testu** bat idatzi beharko duzu, nortasun klaretarrari buruzko zure irizpidea azalduz.*

| | |
|----------|--|
| Balioak | |
| Irudia | |
| Eslogana | |
| Testua | |

Nire harremana Gure Fundatzailearekin

Zu Andre Mariaren Bihotz Garbiaren Seme zara, misiolari klaretarra zara, zu baino lehen Antonio Maria Claret izeneko gizon bat izan zelako. Ez da hori, noski, zure bokazioaren arrazoi nagusia, baina, bai, Jainkoak hala nahi izan duen bitartekaritza historiko bat. Antonio Maria Claret Espirituzko gizona eta misiolari nekaezina izan ez ezik, bertan parte-hartzera deitu zaituen erlijio-sendiaren sortzailea ere izan zen. Ez da baldintza kanoniko hutsa, Jesusi jarraitzeko gure moduari izaera garbia eman dion bitartekari-lana ere bada. San Antonio Maria Claret izan ez balitz, zure bizitza ez zen izango izan dena. Horregatik, fundatzaile bat ez da bakarrik eredu bat, aita bat ere da, bitartekari bat (cf. **3. eranskina**).

Horrez gain, fundatzaile orok du Joan Bataiatzailearena den zerbaite: jarraitu beharreko bakarrari seinalatzen dio, Jesukristo. Elizak berak gogorarazten digu: “Jainkoarenganako jarraibidean eta hari onartzen diogun gure maitasunean badira gaur bereziki nabarmentzea merezi duten bi alderdi, bizitza sagaratuan santutasunaren hazkundera buruzkoak. *Sortze karismari fidelitasuna* eskatzen da batez ere, eta, ondorioz, baita Erakunde bakoitzaren ondare

espiritualari ere. Fundatzaileen inspirazioarenganako fidelitasun –Espiritu Santuaren dohain– horretan hain zuzen, errazago aurkitzen eta gogotsuago berpizten dira bizitza sagaratuaren oinarritzko osagaiak” (*Vita Consecrata* 36). Ez dugu Claretek egindakoa berriz egin beharrik, ez noski. Haren espirtuarenganako fidelitasunari jarraitu behar diogu, nonahi eta noiznahi berpiztuz: “Erakundeei dei egiten diegu beren fundatzaileen *adorea, sormena* eta *santutasuna* ausardia handiz birsortzeko, gaur egungo munduan sortzen diren gure garaiko ikurrei erantzunez” (*Vita Consecrata* 37).

XXIV. Atal Orokorren bidez, “Jainkoari eskerrak ematen dizkiogu... Clareten espirtuak Elizan duen indarrarengatik. Inoiz baino gehiago dira gaur haren ospari lotutakoak eta, haren antzera, Ebanjelioaren berri emateko prest dauden sinestunak” (*HAC* 18). Clareten ospeagan pozez bizi diren gizon eta emakume multzo horretan al zaude zu ere? Zer da harengandik ikasi duzuna? Laburbilduz, zer esanahi du zuretzat? Harreman horri buruz, honako ariketa honetan sakondu dezakezu:

3. ariketa: Clareten irudiei buruzko nire ikuspegia

San Antonio Maria Clareten lau irudi daude ezkerreko zutabearen. Poliki-poliki begiratu. Bere bizitzaren adierazle diren ezaugarriak azaltzen hasiko zaizkizu. Horiek azaltzen diren neurrian, idatz itzazu, labur, eskuinaldeko zutabearen.

| | |
|-------------------------------|--|
| 1. Claret Gerezikoa | |
| 2. Claret Fundatzailea | |
| 3. Claret Vatikanokoa | |
| 4. Claret idazlea | |

Orain, honako galdera hauei erantzun zure koadernoan:

1. Lau irudi horien artean, zeinek adierazten du hoberen zure nortasuna? Zergatik?
2. Fundatzailearekin gordetzen duzun harremana nolako dela esango zenuke? Zure misiolari-bizitzan zehar, bizi izan al duzu aldaketa sakonik?
3. Nola egin duzu Fundatzaileari buruzko zure jakintzan sakontzeko? Batez ere Autobiografia, baina irakurtzen al duzu haren libururik? Biografia-lan mardulen bat irakurri al duzu?
4. Nola ospatu zenuen Jaio zeneko bigarren mendeurrena? Claretekin zure harremana hobetzeko zerbaite eman al zizun?

Nire harremana Kongregazioarekin

Gure nortasunari estu lotua dagoen gorabehera da hori, eta XXIV. Atal Orokorrean ere aztertzen da (cf. HAC 37-41). Kongregazioko kide guztiak Aita beraren eta Ama beraren semeak bagara, anaitasunezko harremana da gure artekoa. Oinarrizko puntu horretatik abiatuta egingo dugu aurrera, kidesunaren auzia aztertzeko.

Askotariko kidesunak markatzen du gaur bizi dugun testuingurua. Denok gara gure *familiako* (eta, agian, ez zaio funtsezko harreman horri orain bezalako garrantzirik sekula eman), gure *herriko*, gure *kulturako* edota hainbat eta hainbat *elkarteko*: apaiztegia, irakasleen klaustroa, mugimendu apostolikoak, kirol elkarteak, lagun taldeak, fundazioak, GKEak, etab. Askotariko kidesunetan gauzatutako sarean bizi eta horrek aberastu egiten gaituela egia bada ere, “Gure kidesunak, Kongregazioan elkarrekin bizi dugun bokazioaren bitartez Kristoren bizi berrian sartu garen unetik, ez du hori baino handiagorik” (HAC 37).

Kongregazioa –garai batean esan ohi zen bezala– guran Mariaren amatasuna betikortzen duen “ama Kongregazioa” da. Agian, zure adina edo zure testuingurua dela-eta, ez zaude Kongregazioei buruzko berba hori erabiltzen ohitua, baina bere oinarri historikoa zein den jakiteak mesede egingo dizu. Adibidez, Barbastroko martiri klaretarrak Kongregazioari buruz ari direnean, –*ama*– hori da gehien erabiltzen duten hitza: “Haiengan argitzen dira, ikur antzera, gure nortasuna eratzen duten oinarrizko osagaiak: Jesukristorenganako, Mariaren Bihotzarenganako eta Elizarenganako maitasuna, misiolari-grina, Hitzarenganako eta Eukaristiarenganako debozioa, elkarterako sena, behartsuenganako kutuntasuna, etab.” (HAC 39).

Kongregazioaren bidez, Jesusenganako gure atxikimenduaren konpromisoa ziurtatzen

dugu. Eta gure esker ona, gure errespetua, gure leialtasuna eta gure jarduera ematen dizkiogu.

Argi dago, beraz, Kongregazioarekin lotzen gaituena ez dela besterik gabe lan-kontratu bat gogoak ematen digunean desegin daitekeena; esate baterako, gure norako berria gogokoa ez dugunean, arazoren bat sortzen zaigunean elkarte mailan, edota tentagarri egiten zaigunean klero sekularrean sartzea. Eta ez da ere denbora pasarako, gure ahalegintxoak jarri eta bazkide huts izateko elkarte bat. Familia berri bat da. Ez dago haragizko eta odolezko loturarik. Jainkoaren Hitza dago familiaren bihotzean. Jainkoaren Hitza elkarrekin entzun eta hartzen ez badugu, erlijioso elkarte modura bizitzeak ez du zentzurik. Eukaristiak egiten gaitu elkarte, eta otoitzaren, biziera familiarraren, gobernu erantzunkidearen eta guztiona den misioan elkarrekin aritzearen bidez pizten gara (cf CC 12-13).

Kongregazioaren *aurpegiera*, gaur, *anitza* da. Hainbat herriko, arrazako, hizkuntzako eta kulturako anaiek aberastu egin dute. Baina elkarte kulturantzetan bizitzea ez da erraza. Hasierako ongi etorriaren ondoren, arazo nagusiak azaleratu egin ohi dira, baita gutako bakoitzaren sakonean gordetzen diren aurreiritziak ere. Eta horrelako egoera berri baten aurrean ez dakigu ondo zer egin.

Kongregazioaren barruan ere badaude Kristori jarraituko dion zure esperientziari lotutako beste zenbait alderdi: ahulagoak diren edota arazoak dituzten anaiei babesa eskaintzea, Probintzia edo Ordezkaritza aintzat hartzea, eta bereizkeriarik gabe egitea, gure laguntzaren premian dauden tokietara joateko prest egotea, etab.

Honako ariketa honen bidez, Kongregazioan zure kidesuna nola bizi duzun aztertu dezakegu. Hurrengo galdera guztiak *Quid Prodest* galderaren iturritik edaten dute: Zer ekarriko dizu Kongregazioko legezko kide izateak, anaikidesunaz bizitzetik datozen ondorioak

bizitzen ez badituzu? Zer ekarriko dizu Kongregazioa zure onura pertsonalerako erabiltzeak, guztiona den misioari eskuzabal eta guztiz emana bizi denaren poza sentitzen ez

baduzu? Zer ekarriko dizu Kongregazioan biltzen zaituen giro beroa onartzeak, egiaz behar zaituzten tokietara joateko prest ez bazaude?

4. ariketa: Kongregazioko kide

Karitateak hauspotutako gizakiak izenburua duen aitorten kapitularreko **37-41. zenbakiak** lasai irakurtzeko une egokia izan daiteke hau. Ondoren, honako galdera hauek erantzun ditzakezu zure koadernoan:

1. Kongregazioari buruz nahiko dakizula uste duzu ala dakizun hori elkartean edo, gehienez jota ere zure Erakundean, bizi duzun esperientziara mugatzen da? Zer egin beharko zenuke Kongregazioa hobeto ezagutzeko?
2. Zein dira Kongregazioari buruzko zure sentimendu nagusiak? Bat al datoz Kapituluak esandakoaz (hau da: esker ona, errespetua, leialtasuna eta eskuzabaltasuna)? Ba al duzu besterik? Minik hartu duzula uste duzu? Zein min klase? Nola aurre egin badakizu?
3. Kongregazioari buruz ari zarenean, zein da gehien erabiltzen duzun hitza: ama, familia, erakundea, "gutarrak",...? Esanahi berezirik du zuretzat?
4. Argi-itzalak barne, ontzat ematen al duzu Kongregazioaren historia? Zer izan da onartzen gehien kostatu zaizuna?
5. Nola kalifikatuko zenuke zure kidesaren maila Kongregazioan? Ba al duzu beste erakunderekin harreman aipagarririk? Zertan da desberdin?
6. Zer eskatzen diozu gaur Kongregazioari? Zer eskaintzen duzu bere bizitza hobetzeko?
7. Nola bizi duzu Kongregazioaren baitan dagoen aniztasuna? Onartzen, errespetatzen eta bultzatzen al dituzu diakono-, apaiz-, eta laiko-bokazioak?
8. Bizi izan al zara lehenago ere elkarte kulturantzetan? Zer eragin du zure bizitza pertsonalean? Zein dira jaso dituzun dohain nagusiak? Zein dira topatu dituzun traba nagusiak? Zer ikasi duzu zeure etorkizunerako?

Kristoren jarraipenean otoitz egin, lan egin, sufritu eta saiatu

Misiolariaren Definizioan, gure Fundatzaileak Andre Mariaren Bihotz Garbiaren semea aurkezten digu honako hitz hauekin: Jesukristoren antzera, "Jainkoa bere handitasunean gurtzearen eta gizakiaren salbamenaren alde otoitz egiten, lan egiten, sufritzen eta dena emanda saiatzen den" gizona bezala (CC 9). Gogora ezazu orain lau aditz horien esanahia:

- *Otoitz egin.* Erre gabe argituko duen surik ez dago. Bero-iturririk ez badago, ez da ezer erretzen. Claretek sinboloaren indarra erabili zuen kristau-bizitzaren dinamika, eta, bereziki, bere misio lanaren garrantzia azaltzeko. Misiolariak ez du ez argirik ez

berorik emango, baldin eta "karitateak hauspotzen" ez badu. Eta karitateak ez du hauspotuko, baldin eta Jainkoaren maitasunaz kiskaltzen ez bada. Otoitza da barne-su horretarako sarbide. Hori du bere sekretu! Eta Claretek, gizon apostolikoa izaki, ondo ikasi zuen. Nola uztartzen zituen aditza eta praktika? Oso modu sinplean: "Jainkoari eskerrak, ahoz egindako otoitzak mesede handiago egiten dit buruz egindakoak baino. Gure Aitaren, Agur Mariaren eta Gloriaren hitz bakoitzari onberatasunez eta errukiz sortzen den amildegi bat ikusten diot. Jainko Gure Jaunak adi-adi eta gogotsu egoteko grazia eskaintzen dit, otoitz horiek esaten ditudanean. Eta buruz egiten dudana horretan ere Jainkoak, bere betiko onberatasun eta errukiz, beste grazia asko eskaintzen dizkit; baina ahozkotasunean nabari dut hurbilen"

(Aut 766). Otoitz egiten zuen, milioika gizon eta emakume apalek egin zuten eta egiten duten modu berean: “Jesusen otoitza” eta gure tradizioak utzitako beste hainbat formula erraz erabiliz. Baina kontuz: “onberatasunez eta errukiz sortzen den amildegi bat ikusten zion” hitz bakoitzari. Frantzian eta Erroman eman zuen azken garaiko (1868-1870) Claret hark haurtzaro beretik berekin dakarren aditza indarberritzen du. Aditz batek bestera darama. Claretek praktikatzen duen otoitzak bere burua behartzen du ebanjelioaren alde lan egin eta sufritzera: “Denbora pasatu ahala, Jainko Gure Jaunak, bere betiko onberatasunaren bidez, ezaupidez asetzen nau otoitzean nagoenean, eta haren ohorearen eta gloriaren alde eta arimen alde egiteko eta sufritzeko indar betean sentitzen naiz” (Aut 761).

Datorren urtean, *Patris Mei* garaian, otoitzaren gaia sakon lantzeko aukera izango duzu. Baina otoitzekiko zure esperientzia aztertu nahi baduzu, *Quid Prodest* dinamikaren barruan, egin zeure buruari aurkako bi galdera hauek: Zer ekarriko dit “Jainkoaren izenean” mila gauza egiten ibiltzeak, nire harekiko harreman estu eta dohainekoa oso gutxi lantzen badut? Zer ekarriko dit otoitz betean aritzeak, horrek nire bizitza besteen zerbitzura “okertzen” ez badit?

- *Lan egin.* Claretengan lanerako gogo haurtzaro beretik bereganatutako dohaina da. Oro har, Kataluniako herriak dituen, eta, bereziki, bere familiak eskaintzen zituen dohainen artean zegoen hura ere. Bere haurtzaroaz eta gaztaroaz ari denean, beretzat lana egitea zer zen horrela gogoratzen du: “Gure aitak ehundegia zuen, eta han jarri ninduen lanean. Hitz gaiztorik bota gabe, kexurik gabe eta aurpegi txarrik jarri gabe betetzen nuen aitaren esana. Lanean hasi nintzen eta ahal nuen guztia ematen nuen, denbora alferkerietan galdu gabe, gogo txarrik gabe; eta ahal nuen bezain ongi egiten saiatzen nintzen, nire guraso maiteak mindu ez zitezen, izugarri maite baintuen eta haiek ni ere bai” (Aut 31). Bere bizitza nolakoa izango zen honako esaldi honetan laburbiltzen du: “Gutxi jan eta lan

asko egin” (Aut 745). Aditz horren indarra areagotu egiten da Kataluniako, Kanarietako eta Kubako lurretan misiolari apostoliko modura emango duen garaian. Claret 34 eta 49 urte bitarteko adin horretan dago. Sasoi bete-betean, alegia.

Agian, gaur aditz hori ondo uztartzeko orduan, kosta egiten zaizula ohartuko zara. Batetik, gure kulturak hori du aditzik gustukoena. Oro har, egindakoaren arabera baloratzen gaituzte. Gure rol soziala gure lanbidea da: “Zertan lan egiten duzu?”. Bestetik, lanarengan ihesbide bat edo konpentsazio moduko bat ikusten duen ustea gero eta hedatuago dago. Baina Claret bezalako santu batentzat, zer esan nahi du lan egiteak? Nola jokatzen du? Beretzat, garrantzitsuena ez da egiten duena, egindakoarekin lortu nahi duena baizik; guztiguztiok Jainkoa “azaldu, maitatu, zerbitzatu eta gurtu dezagula”.

Haren esperientziaren argitara, misiolari klaretar gisa egiten diharduzunak Jainkoa “azaldu, maitatu, zerbitzatu eta gurtzea” noraino bilatzen duen galdetu diezaiokezu zeure buruari. Beste behin ere bizitza zalantzan jartzen duzu *Quid Prodest* honen bidez: Zer ekarriko dit modu hain etengabe lan egiteak, nire buruaren bila ibili banabil eta nire bizitzako beste alderdi funtsezko batzuk alde batera uzten ari banaiz? Edo, alderantziz: Zer ekarriko dit hain bizimodu erraza eta lasaia izateak, eman zaidan agindua bete gabe jarraitzen badut?

- *Sufritu.* Maitasunak bizia ematea eskatzen du. Beraz, sufrimendurik gabeko maitasunik ez dago. Ez da, noski, sufrimendu patologikoa, osasun psikiko okerraren ondorio dena, baizik eta maitasunean onartu den bizimodu batetik eratorritako sufrimendua. Bere kabuz bizi izan zuenaren ondorioaz jabeturik, Claretek honako aitoren honekin laburtu zuen: “Egitea eta sufritzea dira maitasun-frogarik handienak” (Aut 424). Hori da Claretek Madrilan eman zuen garaiarekin hobekien uztartzen den aditza. 50 eta 61 urte bitarteko adinean dago. Garai latza: lanik ez, pertsekuzioak, gezur beltzak. Gurutzeko Kristo berpiztuak emango dio taxua bere biografiari.

Gaur baina, sufritu aditzak adiera berriak hartu ditu bere esanahi ebanjelikoan. Zure sufrimendua, beharbada, ez da bakarrik zure arazo pertsonalengatik sortzen (osasuna, onarpena, porrota, etab.), baita pertsona adineko, gaixo, bakartu, esplotatu askoren egoeragatik ere. Zer-Nolako mina egiten dizute gure munduak pairatzen dituen bidegabekeriek? Ongi jasaten al duzu Elizaren “pasioa”? Sufrimendu historiko horiek gure garaiko gizaki izatetatik jaiotzen zaizkigun berrien inguruan egokitzen dira. Santuek egin duten antzera Jesusengan egiaz bat egiteko, ausartzen al zara aditz hori soseguz uztartzen? Zer ekarriko dizu minaren eraginetik babestua bizitzeak, bere anaien sufrimenduarengan hedatzen den Kristoren pasioan parte hartzen ez baduzu?

- *Jainkoa bere handitasunean gurtu eta, dena emanda, mundu osoko gizakiaren salbamenaren alde saiatzea. “Saiatu” aditzak garrantzi handia*

dauka Claretan espiritualtasunean. “Nahi izan” aditzarekin lotzen gaitu (cf. **2. eranskina**). Bere otoitz askoren izaera erromantikoa izan arren, ez da sentimenduetan itotzen. Arazoak konpontzen dakien pertsona da: bitartekoak jartzen ditu. Vic herrian apaizgai izan zen bitartean, urtero-urtero egingo du bere gogoeta-jardunen fruitu den asmoen zerrenda. Jainkoaren borondateztat hartu duen mezua gauzatzeko bere modua da. Haren eredia, hemen, irakasgai bikaina da asmo onez beterik dagoen belaunaldi oso batentzat, asmo guzti horiek idatziz eder agertzen dakiena, baina, sarri, asmo horiek gauzatzeko behar haina borondaterik eta buru-diziplinarik ez duena.

Sutegiaren esperientzian aurrera egin ahala, zure bizimoduaren barruan aldatu beharreko zenbait gauza aurkituko zenituen, ziurrenik. Uste duzu “saiatzen” (zerbait gerta dadin ahalegintzen) ari zarela? Zer ekarriko dizu pentsatu, idatzi, partekatu besterik ez egiteak, azkenean denak berdin jarraitu behar badu?

5. ariketa: Aditzak nire bokazioan

Ariketa honek zure misiolari-bizitzan funtsezkoak diren honako lau eginkizun hauek nola bizi dituzun aztertzea du jomuga: otoitz egin, lan egin, sufritu eta saiatu. Haietako bakoitza zure misiolari-bizitza bene-benetan bizi nahi duzula adierazteko zure modua izan daiteke edo bizitza horren errealtateari ihes egiteko, aurre ez egiteko modua izan daiteke. Zure bizitzan positiboak zaizkizun hiru egintza idatzi ditzakezu + ikurraren azpian; - ikurraren azpian, berriz, negatiboak zaizkizunak. Ariketa hau zure albokoarekin partekatu dezakezu.

| OTOITZ EGIN | | LAN EGIN | | SUFRITU | | SAIATU | |
|-------------|---|----------|---|---------|---|--------|---|
| + | - | + | - | + | - | + | - |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |

3. Gomendagarriak *lectio divina* gure garaiotan egiteko

Hitzaurrean aipatu bezala, koaderno honetako asteen liturgia Urtean Zeharreko hamaikagarren astearekin hasten da. Egun seinalatueta, lehenbiziko irakurgaia San Pauloren eskutizetatik, Genesitik eta Exodotik hartzen da bereziki. Ebanjelioa Mateorena da (5-14 kapituluak). Garai honetan sarri ospatzen dira hotsandiko elizkizunak, eta horiek ere badituzte beren irakurgaiak: Joan Bataiatzailearen Jaiotza, Kristoren Gorputz eta Odola, Pedro eta Paulo Santuak, Jesusen Bihotz Sagaratua, Mariaren Bihotz Garbia eta Santiago Apostolua. Igandetan Mateoren ebanjelioari helduko zaio berriro (10 eta 14. kapituluaren arteko zenbait pasarte).

“Lectio divina” egunero lantzeko, Jainkoaren Hitza behartsuarena den bihotzez jasoko dugu, gu geu argitu eta sendatu gaitzan. Askotariko testuak direla kenduta, mezua berbera da beti: Jainkoak bere Seme

Jesusegan agertzen digu oso-osorik bere maitasuna. Honako galdera hau da funtsezko: Bene-benetan al da Jesus niretzat Jainkoaren izenean iristen zaidan Hitzaz?

Azkeneko zutabearen ageri diren oharrak ez dira azalpen exegetiko, liturgiko edo espiritual laburrak, liturgia urte osoan zehar zure baitan daramazun *Quid Prodest* delakoaren ikuspegitik testua irakurri ahal izateko laguntza txiki bat dira. Egutegi Klaretarra baldin badaukazu, mesede egingo dizu zenbait eguni buruz hirugarren zutabeak * ikurrarekin seinatuak ematen dituen oharrak irakurtzek.

| | | | |
|-------------------------------|--|---|--|
| Astlehenez ekainak 13 | <ul style="list-style-type: none"> • 2 Kor 6,1-10 • Mt 5,38-42 | San Antonio Paduakoaren oroitzapena, Elizako apaiz eta doktore. <i>* Antonio Maria Claret apaiz (1835) ordenatu zuten egunaren urteurrena (Cf. Egutegia, 165-169 or.)</i> | <p>Jesuse hitzetan badago gehiegikeria bat, mundu honetan "bidezkatat" jotzen diren irizpideetatik haratago doana. Noiz? Nola? Paulok erantzuten digu: "Hau da une egokia".</p> <p>Claret apaiz ordenatu zuten egunaren oroitzapena.</p> |
| Asteartez ekainak 14 | <ul style="list-style-type: none"> • 2 Kor 8,1-9 • Mt 5,43-48 | | <p>Jesuse hitzek <i>Quid Prodest</i> galderaren muina azaltzen dute argi eta garbi: Zer ekarriko dizu asko maite zaituztenen eta zutaz beti ondo ari direnen babespean egoteak, "eguzkia zintzoentzat eta gaiztoentzat ateratzen duen Aitarene maitasun unibertuala" zure bizimoduaren bidez adierazten ez baduzu?</p> |
| Asteazkenez ekainak 15 | <ul style="list-style-type: none"> • 2 Kor 9,6-11 • Mt 6,1-6.16-18 | Sta. Mikaela Sakramentu txit santukoaren oroitzapena (Egutegia, 171-177 or.) | <p>Zuzen jokatu, otoitz egin edota barautzen garenean, zertan ari gara?: pertsona erlijiosoaren irudi hutsa zaintzen ala zinezkotasunez bizitzen? Itxurakeriaren tentaldiak gogor egiten du pertsona sagaratuen aurka.</p> |
| Ostegunez ekainak 16 | <ul style="list-style-type: none"> • 2 Kor 11,1-11 • Mt 6,7-15 | Jesukristo Apaiz Goren eta Betierekoaren Eguna (Cf. Egutegia, 195-199 or.) | <p>Jesuse otoitzak argi eta garbi zehazten du bizitzan funtsezkoa (hala eskatu behar diogu Jainkoari) eta alferrikakoa zaiguna. "Test" zoragarri moduko bat dira, gure benetako premiak zein diren jakiteko.</p> |
| Ostiralez ekainak 17 | <ul style="list-style-type: none"> • 2 Kor 11,18-30 • Mt 6,19-23 | | <p>Gaur egungo ebanjelioak ere <i>Quid Prodest</i> zapora ederra dauka. Aukera garbia da: edo altxorrak lurrian bildu eta bildu (arrakasta, boterea, dirua, ongizatea), edo zeruan bildu (gupida, mesedea, norbere burua ematea). Bihotzak bere "altxortzat" duen horri lotzen zaio beti.</p> |
| Larunbatez ekainak 18 | <ul style="list-style-type: none"> • 2 Kor 12,1-10 • Mt 6,24-34 | | <p><i>Quid Prodest</i> aukera berri bat: edo Jesuse Jainko Handia, edo diruaren jainko txikia. Jesuse galderek hausnarketa pizten dute: Ez al da ba garrantzitsuagoa bizia janaria baino? Ez al duzue ba zuek gehiago balio zeruko txori guztiak baino? Erreinuaren eta bere justiziaren bila aritzeak du lehentasuna. Besteak bigarren mailako asmoak dira.</p> |
| Igandez ekainak 19 | <ul style="list-style-type: none"> • Jr 20,10-13 • Rm 5,12-15 • Mt 10,26-33 | Urtean Zeharreko XII. Igandea | <p>Pertsonaren bene-benetako altxorra dira gorputza eta arima. Biak erasotuak izan daitezke. Ez izan beldurrik lehenengoaren hondamendiaren lekuko bazara, baina zaindu ongi bigarrena, izan ere zer ekarriko dizu gorputza babesteak, bere barruan duen arima-biziaren suntsitzaile bihurtu bada?</p> |
| Astlehenez ekainak 20 | <ul style="list-style-type: none"> • Gn 12,1-9 • Mt 7,1-5 | | <p><i>Quid Prodest</i> galderak, bata bestearen atzetik: zer ekarriko dizu besteak zorrotz kritikatzeko (pertsonak, Eliza, mundua), zeure burua ezagutzeko eta zeure ahultasunak izendatzeko ezgauza bazara? Pertsona bezala hazteko aukera galduko duzu, beraz, ezin irakatsiko diozu inori ezer.</p> |

| | | | |
|-------------------------------|--|--|---|
| Asteartez ekainak 21 | <ul style="list-style-type: none"> Gn 13,2-18 Mt 7,6-14 | San Luis Gonzagaren oroitzapena | Gaur, bi atekoa da bizitzaren bidegurutzea: bizira daraman atea estua da; zabalak, berriz, galmenera darama. Zer ari zaizu Jesus esaten? Gauza bera al da zeure buruari eta besteei eskatzen diozuna? |
| Asteazkenez ekainak 22 | <ul style="list-style-type: none"> Gn 15,1-18 Mt 7,15-20 | | Ardi ala otso? Fruitu onak ala fruitu txarrak? Kontua ez da itxurak egiten ibiltzea, sustraiak egiaz lantzea baizik: "Fruituek emango dizuete haien berri". |
| Ostegunez ekainak 23 | <ul style="list-style-type: none"> Gn 16,1-16 Mt 7,21-19 | E. Pedro Mardones (Cf. Egutegia, 179-185 or.) | <i>Quid Prodest</i> esperientziari buruzko beste hausnarketa bat egiteko: Zer ekarriko dizu pertsona elizkoa izateak, Jainkoaren Hitza betetzen ez baduzu? Etxe baten sendotasuna ez du bere itxura ederrak finkatzen, bere zimendu bereziek baizik. Non eraikitzen ari zara, harri gainean ala hondar gainean? |
| Ostiralez ekainak 24 | <ul style="list-style-type: none"> Is 49,1-6 Eg 13,22-26 Lk 1,57-80 | Joan Bataiatzailearen Jaiotzaren Eguna | Joan Bataiatzaileak, "emakumearengandik jaiotakoan artean handienak", bere <i>Quid Prodest</i> partikularra bizi izan zuen: bizimodu erraza baztertu eta penitentziaren bideari ekin zion. Eta, batez ere, bere ahotsa beheratu zuen Hitzaren oihartzun ozenaren mesedetan. |
| Larunbatez ekainak 25 | <ul style="list-style-type: none"> Gn 18,1-5 Mt 8,5-17 | | Erromatar ehuntariaren sinesmenak –paganoa, atzerritarra, menperatzailea– Jesus hunkitzen du. Hura bezalakoak etorriko dira Abraham, Isaak eta Jakobekin Jainkoaren erreinuko mahaikide izateko. Zer ekarriko dizu tradizio zaharreko elizaren partaide izateak, zure fedea ahula bada? |
| Igandez ekainak 26 | <ul style="list-style-type: none"> Dt 8,2-3.14-16 1 Kor 10,16-17 Jn 6,51-58 | Kristoren Gorputz eta Odolaren Eguna | Jaten eta edaten duguna gara. "Zabor-janaria" jaten jarraitzen duenak bere burua zabor bihurtu eta duintasuna galdu egiten du. Jesusen gorputzarekin eta odolarekin elikatzen denak betiereko bizia du. Nola elikatzen duzu zeure burua? Bestalde: zer ekarriko dizu egunero eukaristiako ogia zatitzeak, Kristoren gorputz osoko jaunartzea bizi ez baduzu? |
| Astelehenez ekainak 27 | <ul style="list-style-type: none"> Gn 18,16-33 Mt 8,18-22 | | "Ibaiaren beste aldean" Jesusi jarraitzeko bi modu ezberdinen artean erabaki egin behar da: erosotasuna ala pobrezia, zaharra ala berria. Zeren alde egiten du zure bihotzak? |
| Asteartez ekainak 28 | <ul style="list-style-type: none"> Gn 19,15-29 Mt 8,23-27 | | Arazoa ez da bizitzaren ontzia (edo Elizarena) ekaitzen menpe balantzaka hastea. Jesusengan konfiantza jarria nabigatzen jarraitu dezakegula sinesteko fede falta da Arazoa. Zer ekarriko dizu ibilaldi lasai bat egiteak, fedearen fruitua ez, baizik eta errutinaren eta erosotasunaren fruitu bada? |
| Asteazkenez ekainak 29 | <ul style="list-style-type: none"> Eg 12,1-11 2 Tim 4,6-18 Mt 16,13-19 | Pedro eta Paulo Apostolu Santuen Eguna, apostoluak eta patroikideak (Cf. Egutegia, 187-194 or.) | Pedro ez da bizi jendearen fedearen kontura. Berea den esperientzia dauka. Horregatik aitortzen du: "Zu Kristo zara, Jainko biziaren Semea". Pedro "Harria" da, eta horren gainean eraikiko da bere misioa. Kristo Jesusenganako fede-aitorpen sakonak zure zerbitzu laiko edo ordenakoa elikatzen duela uste duzu? Zer ekarriko dizu arimarik gabe misio bat betetzeak? Lekuko zara, ez funtzionarioa. |
| Ostegunez ekainak 30 | <ul style="list-style-type: none"> Gn 22,1-19 Mt 9,1-8 | | Jesusek gizakia osatzen du guztiz: gorputzez eta espirituz. Paralisia sendatzen du eta bekatuak barkatzen ditu. Jesusekin harreman estuan jartzen zaituen Sutegi esperientzia honetan zehar, oso-osorik sendatzen ari zarela sentitu al duzu? |
| Ostiralez uztailak 1 | <ul style="list-style-type: none"> Dt 7,6-11 1 Jn 4,7-16 Mt 11,25-30 | Jesusen Bihotz Sakratuaren Eguna | Zu, zein taldekoa zara: "jakintsuen" taldekoa ala "txikien" taldekoa? Aitaren misterioa bihotzez apal direnei dagokie. Jesusen bihotz apala nekatuta eta larriminez dauden guztien atsedeenlekua da. Horrela nabari al duzu zure bizitzaren bidean? |
| Larunbatez uztailak 2 | <ul style="list-style-type: none"> Is 61,9-11 Gal 4,4-7 Lk 11,27-28 | Andre Maria Sortzez Garbiaren Eguna | Zer ekarriko lioke Mariari Jesusen ama biologikoa izateak, haren hitza onartu izan ez balu? Andre Maria Sortzez Garbiaren Seme izateak, ororen gainetik, Jainkoaren Hitza –hark egin zuen antzera– entzun eta betetzea esan nahi du. |
| Igandez uztailak 3 | <ul style="list-style-type: none"> Zak 9,9-10 Rm 8,9-13 Mt 11,25-30 | Urteko XIV. Igandea | Jesusen mesianismoa ez dago boterean, baizik eta umiltasunean: "zuzen eta garaile dator, apal eta asto baten gainean" (Zak 9,9). Pertsonen bihotzak eta munduko okerrak indarkeriaren bitartez aldatu daitezkeela uste duzu oraindik? |
| Astelehenez uztailak 4 | <ul style="list-style-type: none"> Gn 28,10-22 Mt 9,18-26 | | Batzuetan, Jesus da ukitzen gaituena. Besteetan, bera da ukitua. Baina beti da sendagarri harengandik sortzen den energia. Uzten al diozu zu ukitzen? Hurbiltzen al zara harengana, dagoen "tokietan" |

| | | | |
|--------------------------------|---|--|---|
| | | | (Hitza, elizakoak, elkartea, behartsuak...) ukitu ahal izateko? |
| Asteartez uztailak 5 | <ul style="list-style-type: none"> Gn 32,22-32 Mt 9,32-38 | | Jesus errukitu egiten zaie artzain gabeko ardiak bezala dabiltzanei. Irakaskuntza eskaintzen die sinagogetan, ebanjelioaren erabilera erakutsiz eta gaixotasunak sendatuz. Hala ere, Erreinuak haren jardueran laguntzeko langile gehiago behar ditu. Zu al zara horietako bat? "Uzta-jabeak" egiazki deitu zaituela uste al duzu? |
| Asteazkenez uztailak 6 | <ul style="list-style-type: none"> Gn 41,55-57; 42,5-7.17-24 Mt 10,1-7 | | Jesusek dei egiten die hamabi apostoluei, prestatu, hezi eta bidali egiten ditu. Ebanjelioak hamabi horien izenak jasotzen ditu. Saiatzen al zara zure ere, haien antzera, bizitzaren eta lanaren bidez Jainkoaren Erreinoa "aurreratzen"? Ardi galduerari zor al diezu zure begirunerik handiena? |
| Ostegunez uztailak 7 | <ul style="list-style-type: none"> Gn 44,18.21; 45,1-5 Mt 10,7-15 | | Doan jaso duguna doan eskaini behar dugu. Zer ekartzen du ebanjelioaren berri emateko baliabide mordoa edukitzeak, gauzarik garrantzitsuena galtzen bada: bere doakotasuna? Ezin dira kontraesanetan erori helburua eta bitartekoak. |
| Ostiralez uztailak 8 | <ul style="list-style-type: none"> Gn 46,1-7. 28-30 Mt 10,16-23 | | Usoak eta sugeak aldi berean. Zuhurtzia eta maltzuratasuna batera. Hala ere, ebanjelioaren predikariak jakin badaki, lehenago edo geroago, etsaitzat hartuko dutela. Zer ekarriko dizu zure burua kosta ahala kosta babesteak, Defendatzaile bakarra Jesusen Espiritua bada? Dizipuluari ekintzaile nekazina izan dadila eskatzen zaio, ez bere burua babestu besterik egiten ez duten argudioak. |
| Larunbatez uztailak 9 | <ul style="list-style-type: none"> Gn 49,29-33; 50,15-24 Mt 10,24-33 | | Ebanjelioak hots egiten duen edonon daude argia, konfiantza eta adorea. Bekatuaren tokian, ordea, iluntasuna, beldurra eta koldarkeria dira nagusi. Esaten al dizute Jesusen hitzek zure norabidea zein duzun? |
| Igandez uztailak 10 | <ul style="list-style-type: none"> Is 55,10-11 Rm 8, 18-23 Mt 13,1-23 | Urtean Zeharreko XV. Igandea | Eskuzabaltasunez egin arren, Hitza zabaltzeak ez du ezertarako balio, hitz hori hartuko duen lurra behar bezala prestatu ez badago? Azalekotan edo kezka "mundutarren" arabera bizi zarela uste al duzu? Zer esan nahi du zuretzat fruitua ematen duen "lur ona" izateak? |
| Astelehenez uztailak 11 | <ul style="list-style-type: none"> Ex 1,8-14.22 Mt 10,34 – 11,1 | San Benito jaia, abade, Europako patroia. A. Felipe Maroto, Aita Nagusia (Cf. Egutegia, or. 211-215) | Zertarako balio du erabaki zuzenak hartzen laguntzen ez duen bakeak? Jesusek zuzena den ikuspegi bakarra eskaintzen digu: "Bere biziaren jabe izan nahian dabilenak galdu egingo du; bere biziaren niregatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du". |
| Asteartez uztailak 12 | <ul style="list-style-type: none"> Ex 2,1-15 Mt 11,20-24 | | Asko dira Jesusek zuretzat egindako seinale eta oharpenak, Korazin, Betsaida, Tiro eta Sidongo herrialdeetan egin zituen bezala. Pertsona sagaratu zara. Esker oneko erantzunik eragin al dizu horrek? |
| Asteazkenez uztailak 13 | <ul style="list-style-type: none"> Ex 3,1-6.9-12 Mt 11,25-27 | | Aitararen deia jende xumeari dagokio. Zer ekartzen digu munduaren begien aurrean jakintsu eta buruargi agertzeak, funtsezkoena ihes egiten badigu eskuetatik, Jainkoaren zeinuak onartzen ez baditugu? |
| Ostegunez uztailak 14 | <ul style="list-style-type: none"> Ex 3,13-20 Mt 11,28-30 | | Jesusen alde egitera behartzen gaituen edozein zama da eramateko errazago eta arinago geure apetek, irizpideek eta interesek sortzen dizkigutenak baino. Jesusen "uztarria" beti da uztarri partekatua. |
| Ostiralez uztailak 15 | <ul style="list-style-type: none"> Ex 11,10-12,14 Mt 12,1-8 | San Buenaventuraren oroitzapena, Elizako gotzain eta doktore | Arauk gure bizitza pertsonalaren eta sozialaren parte dira. Arauk bete egiten ditugu, seguru gaudela sentitzeko. Baina, zer ekartzen digu haiek aintzat hartzeak, errukitasunerako bidean jartzen ez bagaituzte? Hori esklabotasuna baino ez da. |
| Larunbatez uztailak 16 | <ul style="list-style-type: none"> Zak 2,14-19 Sal 22,1-16 Ef 1,3-6.11-12 Mt 12,46-50 | Karmengo Ama Birjinaren oroitzapena * Kongregazioa sortu zeneko 162. urteurrena (Cf. Egutegia, or. 217-224) | Jainkoaren Hitza inspirazio-iturri izan zen Claretentzat. Zenbat ere zailago eta ilunago bidea, Jauna zure artzaina bada ez izan beldurrik: aseko zaitu. Maria beldur zen, baina Hitzean fio zen. |

| | | | |
|--------------------------------|---|--|--|
| Igandez uztailak 17 | <ul style="list-style-type: none"> • Sab 12,13.16-19 • Rm 8,26-27 • Mt 13,24-43 | Urtean Zeharreko XVI. Igandea | Garia eta olo gaiztoa beti batera hazten dira zure bizitzako soroan. Zer ekarriko dizu zugan dagoen olo gaizto guztia errotik garbitu nahi izateak, garia ere bere lekutik kentzeko arriskuan bazaude? Zure bizitzaren jabeak ongi jakingo du biak noiz bereiztu. |
| Astelehenez uztailak 18 | <ul style="list-style-type: none"> • Ex 14,5-18 • Mt 12,38-42 | | Batzuetan beste dei batzuk erakargarriagoak dira Jesusena berarena baino, baina Jonas, Salomon eta bidean gidari ditugun beste guztiak baino gehiago da bera. |
| Asteartez uztailak 19 | <ul style="list-style-type: none"> • Ex 14,21-31 • Mt 12,46-50 | | Aitatasun benetakoa eta anaikidetasun benetakoa Aitaren borondatea betetzea da. Maria emakume handia da, bere Semearen dizipulu izan delako. |
| Asteazkenez uztailak 20 | <ul style="list-style-type: none"> • Ex 16,1-5.9-15 • Mt 13,1-9 | | Jaikoaren Hitza bidean edo lur-eremu harritsuan edo sasiartean galtzen bada, deabruak eraman dezake. Baina hura bere osotasunen hartzen dutenen bizia eraberritzeko energia beti gordeko du. Fio al zara harengan? |
| Ostegunez uztailak 21 | <ul style="list-style-type: none"> • Ex 19,1-20 • Mt 13,10-17 | | Zertarako dituzu begiak, ikusi ere ez baduzu egiten eta zertarako dituzu belarriak, entzun ere ez baduzu egiten? Ebanjelioaren mezua iluna da bihotzez itsu eta gor direnentzat. Baina osorik da argia eta bizia zintzo eta apal bilatzen diharduenarentzat. |
| Ostiralez uztailak 22 | <ul style="list-style-type: none"> • 2 Kor 5,14-17 • Jn 20,1.11-18 | Santa Maria Madalenaren oroitzapena | Mariak negar egin eta bila hasten da, bere Jauna kendu egin diotelako eta non dagoen ez dakielako. Jesus haren izena esanez agertu zitzaion. Jesus ere zure bizitzatik "aldendu" egiten dela nabaritzen duzunean, negar egin eta haren bila hastan zara ala hura desagertua egongo balitz bezala bizitzera ohitzen zara? |
| Larunbatez uztailak 23 | <ul style="list-style-type: none"> • Ex 24,3-8 • Mt 13,24-30 | | Olo gaiztoa gariaren artetik bereizteko zure grinak, zugan dagoen onberatasun ezkutukoa errotik ateratzera eraman zaitzake. Ez al duzu uste zure ahultasunarekin bizitzen ikasi eta Jainkoari garbitu zaitzala eskatu behar diozula? |
| Igandez uztailak 24 | <ul style="list-style-type: none"> • 1 Re 3,5-12 • Rm 8,28-30 • Mt 13,44-52 | Urtean Zeharreko XVII. Igandea | Ezkutua dagoen altxorra, harribitxia, mota guztietako arrainak biltzen dituen sarea. Jainkoaren Erreinua adierazteko hiru modu eder. Prest al zaude daukazuna saldu eta gehien balio duena erosteko? Fedea balio handiko altxor bezala bizi zaituela uste al duzu? |
| Astelehenez uztailak 25 | <ul style="list-style-type: none"> • 2 Kor 4,7-15 • Mt 20,20-28 | Santiago Apostoluaren Eguna, Kongregazioaren patroia (Cf. Egutegia, 225-230 or.) | Bokazioaren grazia daramagu buztinezko pitxerretan. Jesus bezalako zerbitzari izatera deituak izan gara, eta arrakastaren tentaldiak menperatzen gaitu. Zer ekarriko dizu lehenengo izan nahi izateak, besteren mesederako bizia emateari uko egiten badiozu? |
| Asteartez uztailak 26 | <ul style="list-style-type: none"> • Sir 44,1.10-15 • Mt 13,16-17 | San Joaquin eta Santa Anaren oroitzapena, Andre Mariaren guraso | Bizitzan zorioneko egiten gaituena fedearen dohaina da. Askok sinetsi nahi lukete, baina ezin dute. "Fedearen erromes" bat bezala al duzu Maria? Hura lagun harturik al daramazu zure erromes-bidean? |
| Asteazkenez uztailak 27 | <ul style="list-style-type: none"> • Ex 34,29-35 • Mt 13,44-46 | Jainkoaren Morroi, A. Jose Maria Ruiz, irakasleen irakasle eta martiria (Cf. Egutegia, 231-236 or.) | Erreinuaren altxorra ez da sakondu gabe ikusten: "ezkutatua" dago. Erreinuaren harribitxia ez da beste bat: "balio handiko" perla da. Ez duzu fruitu zehatzik ikusten, baina lehen tokian al daukazu Bere Erreinuaren bila ibiltzea? |
| Ostegunez uztailak 28 | <ul style="list-style-type: none"> • Ex 44,14-36 • Mt 13,47-53 | Jainkoaren Morroiak, Tomas Cordero Txit Gorena eta lankideak, martiriak (Cf. Egutegia, 237-241 or.) | Sinestunak, eskribauak egiten duen bezala, badaki zaharrak berrien artetik bereizten. Zer ekarriko dizu berrikuntzei adi egoteak, tradizioaren balioa galtzen baduzu? Zer ekarriko dizu tradizioari eusteak, Espirituaren berrikuntzarako bideak ixten badituzu? |
| Ostiralez uztailak 29 | <ul style="list-style-type: none"> • Prob 31,10-13.19-20.30-31 | Santa Martaren oroitzapena. Jainkoaren Morroi A. | "Etxeko zeregin guztietan lanpetua" al zabilta zu ere, Marta bezala? Zer ekarriko dizu gauza askorengatik kezka eta larri ibiltzeak, "bat bakarra den beharrezkoa" ahazten baduzu? |

| | | | |
|------------------------|--|---|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> Lk 10,38-42 | <i>Candido Casals eta lankideak, martiriak (Cf. Egutegia, 243-248 or.)</i> | |
| Larunbatez uztailak 30 | <ul style="list-style-type: none"> Leb 25,1.8-17 Mt 14,1-12 | | <p>Jesusek Joan Bataiatzailearen heriotzaren berri jakin zuen. Errege bidegabe baten atseginak hil zuen. Haren heriotzak eman zion Jesusi berearen aurreikuspena. Patu berbera izango zuen. Askotan bezala, kontrako norabidean doala dirudien mundu honetan, nabari al duzu Jesusen ebanjelioari leial izateak zure bizimodurako arriskua dakarrela?</p> |
| Igandez uztailak 31 | <ul style="list-style-type: none"> Is 55,1-13 Rm 8,35.27-39 Mt 14,13-21 | <p>Urtean Zeharreko XVIII. Igandea</p> <p><i>(San Ignazio Loiolakoaren oroitzapena, apaiz, Kongregazioaren patroikide) (Cf. Egutegi Klaretarra, 249-253 or.)</i></p> | <p>Joan Bataiatzailearen heriotza bidegabearen aurrean jesusen erantzuna ez da amorruzkoa. Jesusek, errukiturik, jaten ematen dio jendetzari: "Asetzeraino jan zuten denek". Prest al zaude Jesusen bizigaia jasotzeko eta ogia zaitu eta jendeari emateko haren ahaleginean laguntzeko?</p> |

4. Talde dinamikarako

Andre Mariaren santutegiarekin bat eginda, bi dira urte tarte honetan Kongregazioak ospatzen dituen egun seinatuak: Andre Mariaren Bihotz Garbiaren eguna eta Karmengo Andre Mariaren eguna (cf. **5. eranskina**). Elkarreak modu berezian prestatu beharko ditu aurten. Eta egoki bada eta posible, gertu-gertuko elkarteren batekin batera. Andre Mariaren Bihotzari bederatziruena (cf. *Dir* 88), ahal dela, Jainkoaren Herriarekin batera beti. Apaiz ordenatu direnen urteurren bereziak urte tarte horretan ospatzen baldin badira, behar bezalako garrantzia ematea komeni da.

ELKARTEAREN BILERA

- Otoitza: "Andre Mariaren Bihotzari eskaintza" (*Aurkibide Espirituala*, 23. zenb.).
- Fase honetan zehar pertsona bakoitzak bizi izan duen esperientziari buruzko solasaldia:
 - Oso tara hartuta, nola bizi izan ditut azken aste hauek?
 - Nolakoa da Sortzailearekin nire egungo harremana? ("Clareten irudiei buruzko nire ikuspegia" ariketa abiapuntutzat hartu daiteke).
 - Nolakoa da Kongregazioarekin nire harremana? Zer pizten dit bertako kide izateak gaur egun?
 - Guzti horrek, zer-nolako eragina du klaretar bezala hartu dudana bizimodu eta misioan?
- Elkarteren egunerokoari buruzko solasaldia:
 - Zer egin dezakegu Clareten ospea gehiago zabaltzeko?
 - Zer egin dezakegu Kongregazioaren berri guztiori eman eta pertsona gehiagoren partaidetza lortzeko?
- Klaretarraren Otoitza (*Aurkibide Espirituala*, 33. zenb.).

5. Lagunari ibilbidean laguntzeko

Urteak aurrera egin ahala, behin baino gehiagotan mintzatu ahal izan zara zure lagunarekin. Agian, une honetan, ederki egingo zenuke, ongi ezagutzen zaituztenei (sendiko, adiskide, lankide, elkarkide eta apostolu-lankide) hainbat gairi buruz duten iritzia galdetuko bazenie:

- Zer iritzi dute zure apezgintzari buruz? Elizgizon zaren aldetik, zer esango lizukete zure bizimodua hobetzeko?
- Klaretarra eta Kongregazioaren kide zaren aldetik, zer iritzi dute zutaz? Zer da gehien eta gutxien estimatzen dutena? Zer aholku ematen dizuete zure nortasunean eta kidesunean sakontzeko?

Erantzunak aurrez aurre emango dizkizute, edo eskutitz bat bidali diezazukete, baita e-posta bidez ere, etab.

6. Gogoetan sakontzeko

1. A. Nagusiaren Gutun-Zirkularra, Andre Mariaren Bihotzari buruz (1978)

“Kongregazioak hasieratik bertatik izan du Andre Mariaren Bihotz Garbiaren titulua, eta haren zaindaritzaz harro gaude. Hala ere, ez dago argi nondik piztu zitzaion Fundatzaileari Misiolarien Kongregazioa horrela izendatzeko gogoia, baina ez zen bat-batean erabakia izan, denbora luzean baizik. Autobiografian esaten digu, erabakia hartu baino hilabete batzuk lehenago, apaizen Kongregazio bat sortzea komenigarria zela adierazi ziela lagun eta aholkulariei, eta honako deitura honen pean egin beharko zutela: «Andre Mariaren Bihotz Garbiaren Semeak»...

Titulu horren garrantzia ulertu ahal izateko, Bihotzez hartzen duen Mariaren Amatasun Espiritualaren teologian sakondu beharra dugu; baina hori ere ez da nahikoa: Fundatzaileak ematen zion zentzu karismatikoan eta bokaziozkoan sakontzea ezinbesteko da. Harentzat, estu-estu lotuta zeuden kide izatea eta Semeak Erreinuaren Berri Ona hots egiteko beretzat eta izendatu zituen Hamabientzat hartu zuen misioa eta bizimodu berezia. Haren Amak ere bizimodu hori bera eraman zuen. Claretrek hainbat seinale jaso zituen bere bokazio nagusiaren adierazle gisa: Apokalipsiko Aingeruarenean Apostoluak dira Andre Mariaren Bihotzaren Semeak, haren dei profetikoaren oihartzun bizi-bizia suertatu baitziren, trumoiaren antzera zeruan barrena hedatuz lur guztiaren hunkigarri (49). Gure Fundatzaileak honako modu honetan definitzen du Andre Mariaren Bihotzaren Semea: karitatearen suak hartutako gizona, eta, aldi berean, Seme ebanjelizatzailearen baitan guztiz kidetutako misiolaria. Lehengo Kongregazio zaharrak ere horrela ulertu zuen titulu horren garrantzia. Kongregazioaren Otoitzak, hasieraraino

atzera garamatzana historian, Espiritu Santuaren misio-deia jaso duen bakoitzaren alde eskatzen zuen: «duintasunez blai eta emankor Ebanjelioaren berri emanez, Andre Mariaren Bihotz Garbiaren Semearen izena eta izana jasotzeko». Klaretar izandako batzuek, Giol Anaiak kasu, kidesunaren barrukotasuna mistikoki sentitu dute, beste batzuek debozio-kontuak hedatzen direnean ospatzen den propagandazko pozaldia, beste batzuek Kristo Osoaren Amaren Bihotzaren Seme izateko funtsezko printzipio teologiko eta espiritualetara jo dute; bizipen horiek guztiak, Fundatzaileak egin zuen antzera, bokaziozko «dohainea» bertan sartu behar dira, eta, han, banatuta ulertzerik ez dauden kidesunarekin, anaitasunarekin, bizierarekin eta apostolu-misioarekin bizituz urtu.

Kongregazioa, hedatzen joan zen heinean, Mariaren ama-onberatasunaren babesaren sentitzen joan zen, eta Konstituzioak aurrenekoz berritu zirenean, Mariaren Bihotza onartu zen Kongregazioaren zaindaritzat. Oso gutxira ikusi ahal izan zen nola babes horrek laguntzen gintuen 1868ko iraultzan edota mende bukaeran izan ziren barne-arazoetan; hainbat misioren egokitzapenean; baita munduko gerretan eta gerra zibiletan ere; krisi ideologikoen eta bokaziozko krisien aurrean.

Titulua eta Babesa hartu ostean, haren festa ospatzeko beharra piztu zen. Pertsona moralaren Tituludun eta Patroi izateak ez zituen Elizako Tituludun izateak zituen pribilegioak; aita santuaren barkamena lortzea behar-beharrezkoa zen. Erromako barkamena 1862ko maiatzaren 22an heldu zitzaion Aita Fundatzaileari, lehen mailako erritu-saio bikoitz eta ohizko zortziurrenarekin. Oroz gain, sendi-artearen festa zen, eta misiolari guztiak etxean zeuden garaia aukeratu zen horretarako. San Antonio Maria Claretrek elkarteak ospatzen zuen jaira urtero joateko ohitura zuen.

Misioariak, hasieran, Espirituaren lehen berrien berezko gogo beroa bizi zuten; zerbait geroago, pozaldiaren mozkorraldiak jota eta lehenengo desertzioek utzitako tristeziak bultzatuta, jainkoaren dohainean guztiak bizi zuten fede hori «aitortzeko» premia sentitu zuten. Kongregazioaren helburuaren mesedetan, behar hori Jainkoari eta Mariaren Bihotzari modu berezian norbere burua emanaz gauzatu zen, apostolu-biziera Konstituzioek agindutakoaren arabera biziko zutela hitzemanaz. Sagarapen berezi hori Institutuari egonkortasuna emango zion lehenengo lokarria izan zen, iraunpen zinarekin batera. Sagarapen eta agintza horiek Nagusiaren bidez egiten ziren, eta Hirutasuna, Jesukristo eta Maria Txit Santa «Ama Birjina eta Jainkoren Ama eta Ama nirea» lekuko zirela. Baina bestela nahi zuenak eskaintza hori botoen bidez berretsi zezakeen, modu ez agerikoan –zentzu juridikoan– eta ezkutuan bezala, Gobernuaren jazarpenen aurrean zuhur jokatzearren”.

2. Clareten irrikak Autobiografian

Clareten “irrikak” bere Autobiografian azaltzen diren bezala aztertzea bereziki interesgarri da: “nire aitari Bartzelonara eramateko eskatu nion, ehungintzaren artean hobetzeko *irrikaz* nengoen-eta” (56); “Konfesatzeko unean, Kartusian sartzeko nuen nire *irrika* handiaz mintzatzen nintzaion Zuzendariari” (88); “Apaiz-etxea nire patuaren jomugan ez nuenez, hura utzi eta misioetara aldegitiko *irrikaz* bizi nintzen, arimak salbatu nahi nituen, mila neke sufritu behar banitu ere horretarako, nire heriotzarekin ordaindu behar banu ere” (112); “Kartusiar izateko *irrika* itzali zitzaidanean, Jainkoak nigan mundutik urruntzeko hala piztutakoa, orduan erabaki nuen nire arima santifikatu ez ezik, nire hurkoen arimak salbatzeko zer egin eta nola egin ere antzeman behar nuela” (113); “Erromara joateko *irrika* nuen” (126); “Ai Jaun eta Aita nirea, zure borondate txit santuaren berri jasotzeko *irrikaz* nago, hura betetzeko!” (136); “Predikatza eta aitortza entzutera bultzatzen nauten arrazoien artean, lagun-hurkoa zoriontsu egiteko nire *irrika* dago”. (213); “Oi, Aita nirea! Ongi dakit nik ez zaitudala behar bezainbeste maite, baina ongi ziur dakit ere nire zukanako maitasunaren *irrika* berberaz maiteko zaitudan eguna iritsiko dela, Berorrek emango didalako Jesusen eta Mariaren izenenean eskatzen diodan maitasuna” (445); “Ihes egiteko nire etengabeko *irrikak* babestu nau bekaizkeriaz eta munduan estimatzen diren gauzetan bihotza galtzeaz” (622); “Oi, Jainko nirea, orain zu inor ez iraintzearen alde egin baneza? Aitzitik, nik egin baneza izaki guzti-guztiak zuzendu zukanako onarpenezko, maitasunezko eta zerbitzuzko konpromisora! Hori dut *irrika* bakar; gainerako guztiak arretarik ere ez du merezi” (641); “Hitz horiek hunkitu egin ninduten sakon-sakonetik,

okertezina izateko *irrika* biaz” (674); “*Irrikaz* zain nago baimena noiz iritsiko zaidan taula baten gainean lo egin ahal izateko, ez dut ohean egin nahi; oheak burua txartzan dit” (657); “Hain nago Madriletik mundura predikatza irteteko *irrikaz*, ezen ez dakidan nola esan uzten ez didatelako sufritzen ari naizena, Jainkoak bakarrik daki” (762); “Baina berorrek esaten didana da helburuak, joerak, *irrikak*, ez direla kontzientziarenak, baina hemen kontzientzia besterik ez dago” (848); “1839. urteko urriaren lehen egunetan, atzerriko misioetara hurbiltzeko *irrikaz*, Erromara joan zen” (859).

3. Fundazioaren margolanaren inguruko gogoetak



Pertsonak

Giza irudiek betetzen dituzte margolanaren bi herenak. Jesusek hamabi aukeratu zituen. Vic-eko gelan eder agertzen zaigu haien erdia: *sei*. Bi ezkerrean, hiru eskuinaldean eta, erdian, zutik, eskuineko eskua jasota, Antonio Maria Claret. Eskasa kopuruz. Talde-dinamikak prestatzen adituak besteren bat gehitzeko aholkua emango luke, giro osasungarriagoa eta eragin emankorragoa lortzearen alde. Baina honako hau betetzen da hemen ere: “asko dira deituak, gutxi, berriz, beren erabakiz hautatutakoak”.

Clotetek kontatzen digu “Jainkoaren berri jaso eta gero, A. Claretek bilerarako deia egin ziela hainbat apaizi, aurreikusitako plana proposatzeko; haietako batzuk onartu egin zuten; beste batzuek, berriz, edo hari jarraitzeko adorerik ez zuten izan, edo oztopo gaindiezinaren batek ez zien egiten utzi”. Gogoa izatea eta gogoa hartzea bi gauza oso desberdinak baitira. Atzo, orain eta beti.

Gainera, kopuruaren kontu hori gaur egungo obsesio dugu. Matematikak ezin du egia menderatu. Esaten zuen Mark Twainek hiru gezur mota daudela: gezurrak, gezur madarikatuak eta estatistikak.

Guztiak *gizonezkoak* dira. Beltzez jantzita eta gai oso serio baten aurrean jarriak egon arren, *gazteak* dirudite. Jaime Cloteten 26 eta mosen Clareten 41 urte

bitarteko gizonezkoak dira. Ez zuten lehendik elkar ezagutzen, ez denek, baina aurretik hitz eginda zeuden Claretekin eta haren espiritu berari erantzuten zioten. Guk oso ongi ezagutzen ditugu haien perfilak, eta pintatzeko ahaleginak egin ditu margolariak, baina ez du asmatu.

Kosta egiten da marra horietan Antonio Maria Claret, 41 urteko misiolari nekazina, ikustea; berdin Esteban Sala, 37 urte, gizon ikasia, zuhurra, Clareten lankidea (“eskarmentua bada zerbait”); Manuel Vilaro, 32 urte, onbidetsua, Tarragonako misio-kanpainan lankidea; Domingo Fabregas, adin berekoa, gizon zintzoa, azken orduko gonbidatua; Jose Xifre, baita 32 urterekin ere, adoretua, ekintzailea, misiolaria; eta Jaime Clotet, 27 urte betetzeko zorian, leiala, abegitsua. Azken horrek aurpegiz baizik ez zuen Fundatzailea ezagutzen, baina hark hartutako arduren berri bazuen.

Begiak eta *eskuak* gure jarreraren datu-banku bat dira. Begirada altxatzen dugunean, haietako inor guri begira ez dagoela ikusten dugu. Beren gauzetan dabilta. Hiru daude Clareti begira, hala ematen du behintzat. Batek, betazalak bildurik, Fundatzailearen ezkerreko eskuan ipintzen ditu begiak. Atzean, beste bat, txokoaren marra bertikala gorputzarekin estaliz, zutik, infinitura begira jarri da.



Eskuak ere askotarikoak dira. Bat mahaiaren gainean dago. Ezkerraldean dagoenarenak masailezurrari eusten dio. Batzuk gurutzatu egiten dira; beste batzuek estu heltzen diote liburuari. Mezu argi bat helarazi nahi diguten bakarrak Fundatzailearenak dira. Eskuinekoak hatzaz goaldea erakusten digu: agian zerua, agian Andre Mariaren margolana. Ezkerreko eskua mahai gainean uzten du, paperak ukitzen.

Eta gu, kodeak argitu-zale garen aldetik, esanahia esatera ausartuko gara. Hau goitik dator (“Zerutik jaiotzen ez dena...”), baina errealtate bihurtzen da gaur sortzen ari garen honetan (“Jainkoari erreguz, beharrari mailuz”). Edo beharbada: “Gure ama begira dezagun” (margolana erakutsiz). “Gure izana hemen dago” (lehenago orrialde horietan idatzi baitu “Mariaren Bihotz Garbiaren Seme izateko...” hori).

Baretasuna antzematen zaie aurpegietan, ardura eta poztasun pausatua. Ez zaie barrez ikusten,

eta ederra litzateke, baina XIX. mendeko gizonek zuten jartzeko modua ez zen hori. Seriotasuna, beste edozein sentimenduren ginetik. Edo agian, garaian garaiko pintura-baldintzek margolaria preso hartua daukate eta ez da arimaren gorabeherak adierazteko gai. Benetan garrantzitsua da konturatzea, Ama Birjinaren margolanera proiektatzen den piramidea osatzen dutela, eta elkarrekin egiten dutela. Bai, elkarrekin, bat eginda eta ez bata bestearen ondoan. Batek besteak animatzen ditu, baina ez, guztion lana da, ezkerraldeko txokoan dagoenak zer pentsatu asko duela ikustea bitxia bada ere.

Gure izaera kritikoak, ordea, ez du atsedenik. Sei apaiz sekular gizagaixo horiek, zer egin dezakete? Korintoarrei egindako lehenengo gutunak bihotza lapurtzen digu: “Begira bestela, senideok, zeintzuk zaretzen Jainkoak deitu zaituztenok: ez dira zuen artean munduak jakintsutzat hartzen dituenetatik asko, ezta ahaltsu nahiz aitoren semeetatik ere!” (1 Kor 1,26). Ez dago haien artean literaturaren edo filosofiaren historian sartu denik. Gehienek ez dakite haien izenik. Beharbada horregatik da margolan hori lotsarik gabe bere aurrean jartzen uzten gaituen ispilua antzekoa.

Manuel Vilaro eserita dagoen lekua gutako edonork hartu lezake: “Aitzitik, munduak zorotzat duena aukeratu du Jainkoak jakintsuak lotsarazteko, eta munduak argaltzat duena indartsuak lotsarazteko” (1 Kor 1,27). Talde horrek ongi merezia lortu du gure irri-solasa: “Oso baboa da guztiaz barre egiten duena, baina oraindik baboago ezertaz ere barre egiten ez duena” (Erasmus Rotterdamgoa). Umorea erakustaldia da. Eta eskerrona du sustrai.

Zorroztu ditzagun belarriak. Margolanen ageri zaigun seikotea *a cappella* ari da klaretar jatorra den *magnificat* bat abesten: “Oi Jainko nirea, bedeinkatua zu zure Ama Txit Santaren Bihotz Garbiaren Seme izateko aukeratu nahi izan gaituzulako zure zerbitzari apal guztien artean!” (Aut 492). Eta beste bat. Ea bigarren zati honek zer dioen: “Oi Ama txit bedeinkatua, alabatua izan zaitezela mila bider, zure Bihotz Garbiaren leuntasunagatik eta zure seme izaten uzteagatik” (Aut 493).

5. Karmengo Andre Mariaren Ereserkia

Bedeinkatua Ama oinutsik etorria,
gugana harri-kolorez jantzia,
mantu ordeztutako apar zuriaz,
Karmengo Andre Maria.

Gu gara zure Seme besoetan dakartzula.
Naufrago guztien gogo eta brujula.
Olatu-gainean gure deiaren olatua,
Ama eskertua.

Gaur misiolari jaio
–batel hauskor munduaren itsasoko–
zuretzat da, arraunak zerura jaso,
gure kantuaren bozkario.

Ildo berriez gure ontzien gilak,
zerua ere masten gainean berri-berria,
eta sutan badatoz ekaitzak gure bila

portu zurean hartu gaitzala ongi etorria.

Aitari eta Semeari ohore betiko:
behin egina gure ahizpa eta Ama izateko.
Bere obra bidez Espiritu-gloria sekula sekulako,
gloria betiereko.